ZIZURKILGO UDALA

## OHIKO OSOKO BILKURARAKO DEIA

Honen bidez, Ohiko Osoko Bilkurarako deitzen dizut:

Eguna: **2012ko otsailaren 27a, astelehena**

Ordua: **19:00**

Tokia: Udaletxeko Osoko Bilkuren Aretoa

### EGUNEKO AZTERGAIAK

**1.- AURREKO UDALBATZARRAREN AKTA ONARTZEA, BIDEZKOA BADA (2012.01.30).**

**2.- PSE-EEREN MOZIOA 2011ko FINANTZIAKETARAKO FORU FUNTSAREN LIKIDAZIO NEGATIBOAREN AURRIKUSPENA ITZULTZEARI BURUZ**

**3.- TUTORETZAPEKO ADIN TXIKIKOEN ZENTRUARI BURUZKO ZIZURKILGO UDALAREN ADIERAZPENA.**

**4.- NAZIOARTEKO ELKARTASUNA ETA GARAPENERAKO EUSKAL LANKIDETZA PUBLIKOAREN ALDEKO ADIERAZPENA.**

**5.- BILDUREN MOZIOA HIRI HONDAKINEN TRATAMENDUARI BURUZ.**

**6.- ALKATEAREN DEKRETUAK JAKINARAZTEA (2012/11tik 2012/28ra).**

**7.- GALDE-ESKAKIZUNAK.**

Zizurkil, 2012ko otsailaren 24an.

Alkatea.

## CONVOCATORIA A PLENO ORDINARIO

Por la presente le convoco a la Sesión de Pleno Ordinario a celebrar:

Día: **27 de Febrero de 2.012, Lunes**

Hora: **19:00**

Lugar: Salón de Plenos de la Casa Consistorial.

### ORDEN DEL DIA

**1.- APROBACION, SI PROCEDE, DEL ACTA DEL PLENO ANTERIOR (30.01.2012).**

**2.- MOCION DEL PSE-EE SOBRE LA DEVOLUCION DE LA PREVISION DE LA LIQUIDACION NEGATIVA DEL FONDO FORAL DE FINANCIACION 2011**

**3.- DECLARACION DEL AYUNTAMIENTO DE ZIZURKIL EN RELACION CON EL CENTRO DE MENORES TUTELADOS.**

**4.- MANIFIESTO POR LA SOLIDARIDAD INTERNACIONAL Y LA COOPERACION PUBLICA VASCA PARA EL DESARROLLO.**

**5.- MOCION DE BILDU SOBRE EL TRATAMIENTO DE LOS RESIDUOS URBANOS.**

**6.- COMUNICACION DE DECRETOS DE ALCALDIA (del 11/2012 al 28/2012).**

**7.- RUEGOS Y PREGUNTAS.**

Zizurkil, 24 de Febrero de 2.012

El Alcalde.

ZIZURKILGO UDALA - ALKATEGOA

Teodoro Hernandorena kalea, 6 - 20159 Zizurkil - Tel.: 943 69 10 12 - Fax: 943 69 32 00 - e-posta: zizurkil@udal.gipuzkoa.net
Elbarrena Auzoan: Aurrera Plaza, 3 - 20159 Zizurkil - Tel.: 943 69 30 66 - Fax: 943 69 36 74 - e-posta: bulegoa@zizurkil.com
www.zizurkil.com

**2012ko OTSAILAREN 27an EGINDAKO OHIKO BILKURAKO AKTA**

**ACTA DE LA SESION ORDINARIA CELEBRADA EL DIA 27 DE FEBRERO DE 2.012**

**Partaideak/ Señores Asistentes:**

**ALKATEA / ALCALDE:**
José María Luengo Zapirain Jauna (Bildu)

**ZINEGOTZIAK/CONCEJALES:**
Eva Usandizaga Mujika (Bildu)
Leire Zubeldia De Esteban (Bildu)
Aritz Esnaola Arruti (Bildu)
Aratz Alkorta Irazusta (Bildu)
Mª Angeles Lazkano Larrañaga (E.A.J.-P.N.V.)
Alaitz Ormazabal Goenaga (Bildu)
Egoitz Sorozabal Iturain (E.A.J.-P.N.V.)

**IDAZKARIA /SECRETARIO:**
José Ramón Eceizabarrena Garmendia

Udaletxeko Osoko Bilkuren Aretoan, bi mila eta hamabiko otsailaren hogeita zazpiko hemeretzi orduak direnean, Zizurkilgo Udaleko Udalbatza bildu da, Alkate jaunaren lehendakaritzapean eta goian aipatzen diren zinegotzien partaidetzarekin. José Manuel Izaguirre Hortelano (Bildu), Oscar Martínez Orive (P.S.E.-E.E./P.S.O.E.) eta Nerea Lizarraga Gabirondo (Bildu) zinegotziak ez dira etorri.

En el Salón de Sesiones de la Casa Consistorial, siendo las diecinueve horas del día veintisiete de Febrero de dos mil doce, se reúne la Corporación del Ayuntamiento de Zizurkil bajo la presidencia del Señor Alcalde y con la asistencia de los Señores Concejales que arriba se citan, no asistiendo los concejales José Manuel Izaguirre Hortelano (Bildu), Oscar Martínez Orive (P.S.E.-E.E./P.S.O.E.) y Nerea Lizarraga Gabirondo (Bildu).

Lehendakaritzaren aginduz bilkura hasi da eta Idazkariak jakinarazi du berau egin daitekeela legez ezarritako quoruma bertan dagoelako.

Abierta la Sesión de orden de la Presidencia, el Secretario informa que la misma puede celebrarse por concurrir a ella el quórum legalmente establecido.

**1.- AURREKO UDALBATZARRAREN AKTA ONARTZEA, BIDEZKOA BADA (2012.01.30).**

Udalbatzak aho batez erabaki du 2012ko ilbeltzaren 30ean egindako Bilkuraren Akta onartzea.

**1.- APROBACION, SI PROCEDE, DEL ACTA DEL PLENO ANTERIOR (30.01.2012).**

La Corporación, por unanimidad, acuerda aprobar el Acta del Pleno celebrado el día 30 de Enero de 2.012

**2.- PSE-EEren MOZIOA 2011ko FINANTZIAKETARAKO FORU FONDOAREN LIKIDAZIO NEGATIBOAREN AURRIKUSPENA ITZULTZEARI BURUZ.**

Akta honen I Eranskinean ikusi daiteken Mozioa ikusi da eta aurkeztu duen P.S.E.-E.E./P.S.O.E. udal taldeko ordezkaria ez egon arren, eta kontuan izanik 2011ko Udal Finantzaketarako Foru Fondoaren likidazio negatiboaren itzulketari buruz erabaki bat hartua dela, Udalbatzak ordenantza hau onartzeko dagokion bozketa egiten du eta emaitza hau izan da:

- Aldeko botoak: 0.
- Aurkako botoak: 6 (6 Bildurenak).
- Abstentzioak: 2 (2 E.A.J.-P.N.V.renak).

Beraz, botoen gehiengoarekin, aurkeztutako Mozioa baztertua izan da.

**2.- MOCION DEL PSE-EE SOBRE LA DEVOLUCION DE LA PREVISION DE LA LIQUIDACION NEGATIVA DEL FONDO FORAL DE FINANCIACION 2011**

A pesar de la ausencia del representante del grupo municipal P.S.E.-E.E./P.S.O.E., se presenta la Moción, que consta como Anexo I de este Acta, y dado que ya se ha llegado a un acuerdo de la devolución de la liquidación negativa del Fondo Foral de Financiación Municipal de 2.011, la Corporación, procede a realizar la votación correspondiente para su aprobación, con el siguiente resultado:

- Votos a favor: 0.
- Votos en contra: 6 (6 de Bildu).
- Abstenciones: 2 (2 de E.A.J.-P.N.V.).

por lo que, la Moción presentada, es rechazada por mayoría de votos.

**3.- TUTORETZAPEKO ADIN TXIKIKOEN ZENTRUARI BURUZKO ZIZURKILGO UDALAREN ADIERAZPENA.**

Udalbatza, bertan diren 8 kideen aldeko botoekin, 6 Bildurenak eta 2 E.A.J.-P.N.V.renak, hurengo adierazpena onartu du, Zizurkilen dagoen tutoritzapeko adin txikikoen zentruari buruz.

"Zizurkilgo Udalak adierazpen honen bidez, azken asteotan eztabaida publikoa piztu duen adin txikiko zentroari buruzko bere jarrera argitu nahi du, eztabaida gehiago ekidin nahian. Hainbat puntu nabarmendu nahi ditu:

1.- Gipuzkoako Foru Aldundiarena dela bai eraikina eta baita bere kudeaketa ere. Zizurkilgo Udalak ez du eraikinean inongo eskumenik.

2.- Beste ezeren gainetik, bizilagunei laguntzeko prest egon dela eta egongo dela beti Udala. Bai bizilagunen bizi baldintzak eta baita zentroaren funtzionamendua hobetzeko ere aldundiarekin bitartekaritza egiteko prest gaude.

**3.- DECLARACION DEL AYUNTAMIENTO DE ZIZURKIL EN RELACION CON EL CENTRO DE MENORES TUTELADOS.**

La Corporación, con el voto favorable de los 8 corporativos presentes, 6 de Bildu y 2 de E.A.J.-P.N.V., acuerda aprobar la siguiente declaración en relación con el centro de menores tutelados instalado en Zizurkil.

"El Ayuntamiento de Zizurkil, mediante esta declaración y con el fin de evitar nuevas polémicas, quiere aclarar su opinión sobre el centro de menores tutelados que en las últimas semanas ha sido objeto de un debate público. Queremos remarcar los siguientes puntos:

1.- Que el centro es propiedad de la Diputación Foral de Gipuzkoa, así como su gestión. El Ayuntamiento de Zizurkil no dispone de competencias al respecto.

2.- Ante todo, el objetivo del Ayuntamiento es y será ayudar a las y los vecinos. Estamos dispuestos a mediar con la diputación con el fin de mejorar las condiciones de vida de los vecinos.

3.- Bide horretan aldundiari eskatzen diogu etxearen intsonorizazio lanak hobetu ditzala eta azter ditzala zentroaren funtzionamendua hobetzeko neurriak, besteak beste, azkar dezala ahal den neurrian nerabe gatazkatsuak lekualdatzeko protokoloa.

4.- Era berean, Udalak adierazi nahi du ez dagoela ados herrian beste kokaleku bat proposatzea irtenbidea dela esatearekin. Arazoa ez baita konponduko lekua aldatuta, zentroko funtzionamendua eta bizilagunen bizi-baldintzak hobetuta baizik."

3.- Con ese fin, pedimos a la Diputación que mejore la insonorización del centro y estudie las opciones para mejorar su funcionamiento. Entre otros, que estudie el método para agilizar el traslado de los menores conflictivos.

4.- Del mismo modo, el Ayuntamiento quiere dejar claro que no comparte la opinión de que la solución es cambiar la ubicación del centro. La solución pasa por mejorar el funcionamiento del centro y las condiciones de vida de las y los vecinos."

**4.- NAZIOARTEKO ELKARTASUNA ETA GARAPENERAKO EUSKAL LANKIDETZA PUBLIKOAREN ALDEKO ADIERAZPENA.**

Aurkeztutako Adierazpena Akta honen II Eranskinean ikusi daiteke.

Udalbatzak Adierazpena onartzeko dagokion bozketa egiten du eta emaitza hau izan da:

- Aldeko botoak: 8 (6 Bildurenak eta 2 E.A.J.-P.N.V.renak)
- Aurkako botoak: 0.
- Abstentzioak: 0.

Beraz, Udalbatzak botoen gehiengoarekin, aurkeztutako Adierazpena onartzea erabaki du.

**4.- MANIFIESTO POR LA SOLIDARIDAD INTERNACIONAL Y LA COOPERACION PUBLICA VASCA PARA EL DESARROLLO.**

El Manifiesto presentado es el que se refleja en el Anexo II del presente Acta.

La Corporación vota la aprobación de dicho Manifiesto, con el siguiente resultado:

- Votos a favor: 8 (6 de Bildu y 2 de E.A.J.-P.N.V.)
- Votos en contra: 0.
- Abstenciones: 0.

Por lo que el Pleno de la Corporación, por mayoría de votos, acuerda aprobar el Manifiesto presentado.

**5.- BILDUREN MOZIOA HIRI HONDAKINEN TRATAMENDUARI BURUZ.**

Aurkeztutako Mozioa Akta honen III Eranskinean ikusi daiteke.

Bilduk adierazi du Mozio hau aurkeztu duela Zizurkilen atez-ateko zabor bilketa sistema jartzeko asmoarekin, ondoren zaborren hautazko birziklaia egingo da, errauskailuaren aldeko apostua egin beharrean. Uste du sistema hau dela egokiena eta guztientzako onurarik handienak ekarriko dituena.

**5.- MOCION DE BILDU SOBRE EL TRATAMIENTO DE LOS RESIDUOS URBANOS.**

La Moción presentada es la que se refleja en el Anexo III del presente Acta.

Bildu manifiesta que presenta esta Moción con el ánimo de implantar en Zizurkil el sistema de recogida de basuras, puerta a puerta, y el posterior reciclaje selectivo de las mismas en vez de apostar por la incineradora. Considera que este sistema es el más idóneo y el que mayores beneficios va a reportar a todos.

E.A.J.-P.N.V.k galdetu du zeri buruz ari diren Lan-batzorde bat sortzea aipatzen dutenean, zein funtzio izango lukeen honek eta zein den eta zertarako egingo den egingo den azterketa, bai baitirudi atez-ateko sistema jartzeko erabakia jada hartua dagoela.

E.A.J.-P.N.V. pregunta a qué se refieren con la creación de una Comisión de trabajo y qué función tendría ésta y cual es el estudio que se va a hacer y para qué, si al parecer la decisión de implantar en sistema puerta a puerta ya está tomada.

Gainera iruditzen zaio proposamena aurkezteko modua ez dela egokiena; izan ere, horren berri prentsari eman zaio lehenik eta gero Osoko Bilkurari aurkeztu zaio, aurrez Udalean gutxieneko eztabaidarik egon gabe. Honek Osoko Bilkurarekiko erabateko errespetu falta agertzen du.

Considera además que la forma de presentar la propuesta no es la más adecuada ya que primero se informó de ello a la prensa y luego se presenta al Pleno, sin que previamente haya habido un mínimo debate en el Ayuntamiento. Esto evidencia una total falta de respeto al Pleno.

Aurrez ez da egin proposamenaren borondatea justifikatzen duen azterketarik: ez dago azterketa ekonomikorik ez eta bideragarritasun azterketarik ere.

No se ha realizado previamente estudio alguno que justifique la bondad de la propuesta: no hay un análisis económico ni siquiera un estudio de viabilidad.

Ematen diren birziklapen datu eta portzentaiak oso zailak dira lortzeko; ez dira lortzen arlo honetan aurreratuen dauden herrialdeetan ere. Bestalde, gutxiagotu egiten dira gaur egun gaur egungo sistemarekin lortzen diren birziklapen portzentaiak.

Se dan unos datos y porcentajes de reciclaje que son muy difíciles de conseguir y que de hecho no se consiguen siquiera en los países más avanzados en ese terreno. Por el contrario, se rebajan los porcentajes de reciclaje que, de hecho, se consiguen hoy en día con el actual sistema.

Gainera, sistema berri honen helburuak eta balizko onurak lortzea ez da oso probablea, ez dira kontutan izaten martxan jartzeak dakartzan koste sozial eta ekonomikoak, hala nola dagoeneko onartua dagoen Plana bertan behera uztea eta, ondorioz, errauskailua eraikitzea geratzea, Tolosaldea Mankomunitatearekin indarrean dagoen kontratua bertan behera uztea (zabor bilketak eta besteak) eta gaur egun erabiltzen diren higiezinak ez erabiltzea (edukiontziak etab.).

Además de que el logro de los objetivos y los supuestos beneficios de este nuevo sistema son poco probables, no se tienen en cuenta los costes sociales y económicos que supone su implantación, tales como cancelar un Plan ya aprobado con la consiguiente paralización de la construcción de la incineradora, la revocación de los contratos en vigor de Tolosaldea Mankomunitatea (recogida de basuras y otros) y la inutilización del mobiliario que actualmente se utiliza (contenedores etc.).

Baita ere galdetzen du hiritargoaren iritzia kontutan izango den eta hauek nolabait parte hartuko duten erabakia hartzeko orduan, edo, bestela, ezarri egingo den, Osoko Bilkuran mozio bat onartuz.

Pregunta también si se va a tener en cuenta la opinión de la ciudadanía y se van a contar con algún tipo de participación de ésta en la toma de decisiones o si por el contrario se va a realizar por imposición, aprobando una moción en el Pleno.

Bilduk erantzun du ez dela ezer ezarriko, hondakinen tratamendua eta birziklaia hobetuko duen sistema bat jarriko da.

Bildu contesta diciendo que no van a imponer nada, van a implantar un sistema que mejorará el tratamiento de residuos y el reciclaje de los mismos.

Orain hartzen den erabaki hau datorren urtean

Este acuerdo que se toma ahora es el inicio de un

amaitu nahi den prozesu baten hasiera da eta horretarako egingo dira beharrezko diren azterketak, bai ekonomikoak eta bai bideragarritasunekoak; Prozesua herritarren partehartzerako irekia izango da.

proceso que se quiere culminar el año que viene, y para ello se realizarán los estudios que haga falta, tanto económicos como de viabilidad y el proceso estará abierto a la participación ciudadana.

Nahiko experientzia daude, bai Gipuzkoan eta bai hemendik kanpo, sistemak egoki funtzionatzen duela eta eraginkorra dela adierazten dutenak. E.A.J.-P.N.V.k uste badu sistema berria ezarketa bat dela, gaur egun dagoen sistema ere ezarri egin zela pentsa daiteke, orduan ere inor ez bait zen kontsultatu jarri aurretik.

Hay experiencias suficientes, tanto en Gipuzkoa como fuera de aquí, que indican que el sistema funciona correctamente y es eficaz. Si E.A.J.-P.N.V. considera el nuevo sistema una imposición, el sistema actualmente vigente también puede ser considerada como otra imposición porque tampoco se consulto a nadie a la hora de implantarlo.

Ondoren, Udalbatzak aurkeztutako Mozioa onartzeko dagokion bozketa egiten du eta emaitza hau izan da:

- Aldeko botoak: 6 (6 Bildurenak).
- Aurkako botoak: 2 (2 E.A.J.-P.N.V.renak)
- Abstentzioak: 0.

Seguidamente la Corporación vota la aprobación de Moción presentada, con el siguiente resultado:

- Votos a favor: 6 (6 de Bildu)
- Votos en contra: 2 (2 de E.A.J.-P.N.V.)
- Abstenciones: 0.

Beraz, Udalbatzak, botoen gehiengoarekin, aurkeztutako Mozioa onartzea erabaki du.

Por lo que el Pleno de la Corporación, por mayoría de votos, acuerda aprobar la Moción presentada.

**6.- ALKATEAREN DEKRETUAK JAKINARAZTEA (2012/11tik 2012/28ra).**

2012/11tik 2012/28ra zenbakia duen Dekretuen zerrendaren berri ematen da, 2012ko ilbeltzaren 30etik otsailaren 22ra Alkateak sinatutakoak. Jatorrizkoak, Alkatetzaren Dekretu Liburuan jasota daude eta bertan aztertu daitezke.

Udalbatza jakinaren gainean geratu da.

**6.- COMUNICACION DE DECRETOS DE ALCALDIA (del 11/2012 al 28/2012).**

Se da cuenta del listado de los Decretos nº 11/2012 al 28/2012, firmados por la Alcaldía entre el 30 de Enero y el 22 de Febrero de 2.012, cuyos originales se conservan y pueden ser examinados en el Libro de Decretos de Alcaldía.

La Corporación se da por enterada.

Beste aztergairik gabe, eta hemeretzi orduak eta berrogei minutuak direnean, Batzarra amaitu da eta honetaz guztiaz nik, Idazkariak, fede eta kontu ematen dut.

Y sin más asuntos que tratar, y siendo las diecinueve horas y cuarenta minutos, se levanta la Sesión, de la cual, yo, el Secretario, doy fe y certifico.

**O.I.** **Vº Bº**
**ALKATEA. EL ALCALDE.**

ZIZURKILGO UDALA · ALKATEGOA

# I ERANSKINA – ANEXO I

ZIZURKILGO UDALA
2011 ABE. 2 2
SARRERA / ERREGISTROA
Zenbakia 921

## MOCIÓN DEL PSE-EE SOBRE LA DEVOLUCION DE LA PREVISION DE LA LIQUIDACION NEGATIVA DEL FONDO FORAL DE FINANCIACION 2011

Don Oscar Martinez Orive Portavoz del Grupo PSE-EE del Ayuntamiento de Zizurkil, presenta para su tratamiento en Pleno la siguiente MOCION con relación a la devolución de la previsión de la liquidación negativa del Fondo Foral de Financiación Municipal 2011.

### JUSTIFICACION

El Fondo Foral de Financiación municipal constituye una de las fuentes de ingresos más importantes de los ayuntamientos. Mediante esta aportación que realiza la Diputación Foral de Gipuzkoa, los ayuntamientos participan en lo recaudado por los impuestos concertados. Se trata de un recurso de carácter ordinario y los ayuntamientos pueden destinarlo a financiar cualquier tipo de gasto, ya sea corriente o de capital.

Ante la actual coyuntura económica, las arcas municipales de muchos ayuntamientos guipuzcoanos no pueden devolver a la Diputación Foral de Gipuzkoa el Fondo de Financiación Municipal. Aceptando el principio de riesgo compartido que establece el Concierto Económico, bien es cierto que los presupuestos municipales se encuentran cada año más encorsetados por una situación de escasez de ingresos que obliga a ajustar y priorizar gastos de forma drástica. Tanto la devolución del Fondo de Financiación Municipal, como los reajustes presupuestarios, están provocando fuertes tensiones financieras en los ayuntamientos que no pueden hacer frente a sus obligaciones económicas con la Hacienda Foral.

Este año 2011 no es el primer año de crisis ni tampoco el primero en que se deben devolver cantidades debido a una previsión de la Diputación de mayores ingresos que los luego realizados. Desde el año 2008 los ayuntamientos guipuzcoanos se han visto en la obligación, ante la menor liquidación del

FOFIM sobre la previsión presupuestaria establecida, de devolver millones de euros en los años 2008, 2009 y 2010.

En concreto, en 2009, fueron por ejemplo, veintisiete los millones a reintegrar a las arcas forales por parte del Ayuntamiento de Donostia/San Sebastián.

En aquel momento, y ante la total ausencia de previsiones institucionales y debido a la delicada situación que suponía para todos los municipios guipuzcoanos, se llegó a un acuerdo por iniciativa socialista, en el Consejo Territorial de Finanzas de Gipuzkoa, proyectado en Norma Foral, para que la devolución se produjera en tres años con un primer año, 2010, de carencia. Creemos que dicha negociación fue satisfactoria, facilitadora y posible para todas las partes y que además, es un buen ejemplo a seguir.

La suficiencia financiera es determinante para el principio de autonomía municipal, ya que es imprescindible disponer de medios financieros para poder ejercer sin condicionamientos y en toda su extensión, las funciones que les han sido encomendadas.

Los Ayuntamientos están sufriendo especialmente la crisis y es necesario un ejercicio de solidaridad interinstitucional. Es por ello que el Grupo Municipal del PSE-EE, plantea la siguiente

**MOCION**

**PRIMERO.- El Ayuntamiento de Zizurkil denuncia que la Diputación Foral de Gipuzkoa ha tomado la decisión de no facilitar la devolución de la previsión de la liquidación negativa del Fondo de Financiación Municipal, correspondiente al año 2011, lo que va a suponer ahogar financieramente a este Consistorio**

**SEGUNDO.- El Ayuntamiento de Zizurkil insta a la Diputación Foral de Gipuzkoa a que reconsidere su postura y decida plantear el mismo sistema que se aplicó**

**para la devolución correspondiente al ejercicio 2009, esto es, un año de carencia y el abono fraccionado en los ejercicios 2013, 2014 y 2015**

En Zizurkil, a 19 de diciembre de 2011.

Portavoz del PSE-EE

ZIZURKILGO UDALA

# II ERANSKINA – ANEXO II

## Nazioarteko elkartasuna eta garapenerako euskal lankidetza publikoaren aldeko adierazpena

Giza eskubideei dagokienean pobreziari aurre egitea da gaur egun munduak duen erronkarik nagusiena – munduko biztanleriaren zati handi bat, %40a, muturreko pobrezian edo bere mehatxupean bizi da. Pobrezia ez da diru sarrera kontu bat soilik; baldintza duinetan bizitzearekin eta gizakiari dagozkion oinarrizko eskubide eta askatasunekin zerikusia du.

NBEk Garapenerako Eskubidearen aldeko Deklarazioa (41/128 ebazpena, 1986ko abenduaren 4koa) onartu eta 25 urte geroago, errealitateak munduan milioika pertsonen egoera "giza duintasunarengandik" oso urrun mantentzen dela baieztatzen digu. Gosea sufritzen duten gizakien kopurua mila milioikoa izaten jarraitzen duen bitartean, gero eta txikiagoa den gutxiengo batek sekulako ondasunak pilatzen ditu. Desberdintasuna lotsagarria eta moraltasunik gabekoa da.

Elkartasuna beharrezkoa da desberdintasun hori murrizteko. Gure inguruan, "ongizate estatu"-aren zutabeak kolokan ikusten ditugun honetan, zein munduko beste tokietan. Elkarren artean lotutako arrazoi askogatik: ondasunen banaketa zuzenagoa; aukera berdintasuna gizonentzat eta emakumeentzat; aukera teknologikoen ustiapen hobeago bat; naturaren baliabideen erabilera, arrazoizkoagoa eta jasangarriagoa; ondorengo gizaldientzako bermeekin; demokraziaren sustapena; baliabide finantzarioen kudeaketa eraginkorra eta justua; ingurugiroaren zaintza eta babesa; oinarrizko zerbitzuak eskuratu ahal izatea (ura, osasuna eta hezkuntza); justizian eta elkar erantzukizunean oinarritutako harreman komertzialak, ... etab.

Euskal Herriaren hazkunde ekonomiko eta garapen prozesu nabarmena ezagutu duen belaunaldi batekoak gara. Alegia, garapenerako nazioarteko lankidetzari lotutako ekintzen bidez gure elkartasunerako grina gauzatzea ahalbidetu duen prozesua.

Ez gaude finantza krisi orokorraren eraginez gure herritarren zati handi batek eta euskal erakunde publikoek bizi duten momentu latzetatik at. Errealitate honetatik gertueneko erakundeak garen heinean gure herritarrei arreta eta laguntza bermatzearen alde ahalegintzen gara, baina elkartasunaren eta garapenerako lankidetzaren funsgabeko ezabatzea suposa dezaketen muturreko jarreretan murgildu gabe. Errealitate berrira egokitu beharra dago baina konpromisoak alde batera utzi gabe: gosearen ezabapena, baliabideen birbanaketa, justizia, duintasuna eta askatasuna.

Ekonomia-krisia erronka handia erakunde-ardura duten pertsonen konpromisorako eta borondaterako, justizia sozialerako eta elkartasunerako.

Alde horretatik, Euskal Herriko erakundeek egiten duten ahalegina nabarmentzekoa da. Erakunde berriek Herrien arteko elkartasunarekin bat egitea da nazioarteko lankidetzari zuzenean eragiten dion krisi global honi eman diezaiokegun erantzunik

onena, parte-hartze aktiboa bultzatuz eta ekintza eraginkorrago batera bideratutako koordinazio ahaleginak sendotuz.

Euskal Fondoa elkartea gobernatzen duten helburu orokorrak 1996an ezarri ziren, garai hartan udalean ordezkaritza zuten alderdi politiko guztiek hitzartutako sorrera-akordioan. Hasierako adostasun hura berritu eta eguneratu egin da, alderdi politikoen eta lankidetzaren arloan diharduten gizarte-eragileen artean onarpen handia izan duelarik.

Gaur, orduan bezala, alkateok Euskal Herriko erakunde publikoei dei egiten diegu:

1. Zentralizatu gabeko lankidetzan **agente aktiboen papera har dezaten**, garapenerako nazioarteko laguntza arloan lankidetzarako erakunde bezala hartutako konpromisoari eutsiz eta instituzio publiko berriak misio honetan parte hartzera gonbidatuz.

2. **Ahaleginak batu** ditzaten garapenerako lankidetzara bideratutako aurrekontu-ekarpenen bidez eta Euskal Lankidetza Publikoa osoaren esku-hartzeari koherentzia eta sakontasun gehiago ematera zuzendutako **itun instituzionalak ezar ditzaten**.

3. **EUSKAL FONDOA – Lankidetzarako Euskal Udal Erakundeen Elkartean sar** daitezen, beren programetako autonomia eta hiritarren identifikazioa galtzeko arriskurik gabe, udalen arteko jarduerak koordinatzeko, eta hala, elkarrekin egindako ekintzen bidez, **eraginkortasun eta efikazia handiagoa lortzeko**, esperientziak elkartrukatzeko, laguntza teknikoa jasotzeko, eta abar.

Irunen, 2012ko otsailaren 6an
EUSKAL FONDOAREN ZUZENDARITZA BATZORDEA

Teodoro Hernandorena kalea, 6 - 20159 Zizurkil - Tel.: 943 69 10 12 - Fax: 943 69 32 00 - e-posta: zizurkil@udal.gipuzkoa.net
Elbarrena Auzoan: Aurrera Plaza, 3 - 20159 Zizurkil - Tel.: 943 69 30 66 - Fax: 943 69 36 74 - e-posta: bulegoa@zizurkil.com
www.zizurkil.com

ZIZURKILGO UDALA

# Manifiesto por la solidaridad internacional y la cooperación pública vasca para el desarrollo

La pobreza es el más grave de los desafíos que afronta actualmente el mundo en lo que respecta a los derechos humanos –una proporción enorme de la población mundial, el 40%, vive con la realidad o la amenaza de una extrema pobreza-. La pobreza no es sólo una cuestión de ingresos sino que guarda relación con la capacidad para vivir en condiciones dignas y disfrutar de los derechos y libertades básicos del ser humano.

25 años después de la ONU adoptara la Declaración sobre el Derecho al Desarrollo (resolución 41/128, de 4 de diciembre de 1986), la realidad nos confirma que la situación para millones de personas en el mundo permanece muy alejada de la "dignidad humana". La cifra de mil millones de seres humanos que padecen hambre crónica se mantiene estable, mientras un cada vez más reducido número de personas acumula enormes riquezas. Se trata una desigualdad indecente e inmoral.

La solidaridad es necesaria para reducir esta desigualdad. Tanto en nuestro entorno más cercano, donde vemos tambalear los pilares del "estado de bienestar", como en otros lugares del mundo. Por múltiples razones relacionadas entre sí: un reparto más equitativo de las riquezas; la igualdad de oportunidades para hombres y mujeres; un mejor aprovechamiento de las oportunidades tecnológicas; un manejo más racional y sostenible de los recursos naturales; con garantías para las generaciones futuras; el fomento de la democracia; la gestión eficaz y justa de los recursos financieros; el cuidado y la protección del entorno medioambiental; el acceso a los servicios más básicas (agua, salud y educación); relaciones comerciales basadas en la justicia y la corresponsabilidad...etc.

Pertenecemos a una generación que ha conocido el importante proceso de crecimiento económico y desarrollo de Euskal Herria que ha permitido poner en práctica nuestra vocación solidaria con otros Pueblos más desfavorecidos a través de acciones de cooperación internacional para el desarrollo.

No somos ajenos a los difíciles momentos que atraviesan amplios sectores de nuestra ciudadanía y las entidades públicas vascas como consecuencia de la crisis financiera global. Como entidades más próximas a esta realidad orientamos nuestro esfuerzo a preservar la atención y la ayuda a nuestra ciudadanía, pero sin caer en actitudes extremas que supongan una supresión infundada de las políticas de solidaridad y cooperación para el desarrollo. Se trata de adecuar las posibilidades y los recursos a la nueva realidad pero sin eludir compromisos como la eliminación del hambre, la redistribución de recursos, la justicia, la dignidad y la libertad.

La crisis económica supone un reto al compromiso y a la voluntad de las personas con responsabilidad institucional en relación a la justicia social y a la solidaridad.

Teodoro Hernandorena kalea, 6 - 20159 Zizurkil - Tel.: 943 69 10 12 - Fax: 943 69 32 00 - e-posta: zizurkil@udal.gipuzkoa.net
Elbarrena Auzoan: Aurrera Plaza, 3 - 20159 Zizurkil - Tel.: 943 69 30 66 - Fax: 943 69 36 74 - e-posta: bulegoa@zizurkil.com
www.zizurkil.com

En este sentido destacamos el esfuerzo que realizan las instituciones vascas. La mejor respuesta que podemos dar a esta crisis global, que afecta de manera directa a la cooperación internacional, es la adhesión de nuevas entidades comprometidas con la solidaridad entre los pueblos, promoviendo su participación activa y reforzando los esfuerzos de coordinación para una acción más eficaz y eficiente.

Los objetivos generales que actualmente rigen la Asociación Euskal Fondoa son el resultado del acuerdo fundacional alcanzado el año 1.996 entre todos los partidos políticos con representación municipal. Este consenso inicial ha sido renovado y actualizado con un amplio reconocimiento entre los partidos políticos y agentes sociales vinculados a la cooperación.

Hoy, como entonces, los alcaldes y las alcaldesas llamamos al conjunto de las institucionales públicas vascas a:

1º. **Asumir el papel de agentes activos** de la cooperación descentralizada, manteniendo los compromisos adquiridos como entidades cooperantes en materia de ayuda internacional para el desarrollo e invitando a participar en esta misión a nuevas instituciones públicas.

2º. **Sumar esfuerzos** por medio de aportaciones presupuestarias destinadas a cooperación para el desarrollo y **establecer alianzas institucionales** encaminadas a dotar de mayor coherencia y profundidad a la intervención del conjunto de la cooperación pública vasca.

3º. **Integrarse en la dinámica de EUSKAL FONDOA** - Asociación de Entidades Locales Vascas Cooperantes con el fin de coordinar las actuaciones, sin perjuicio de mantener la autonomía y la identificación ciudadana de los programas, y **alcanzar mayor eficiencia y eficacia** mediante el apoyo a acciones conjuntas, el intercambio de experiencias y la asistencia técnica.

En Irún, a 6 de febrero de 2012
JUNTA DIRECTIVA DE EUSKAL FONDOA

# III ERANSKINA – ANEXO III

ZIZURKILGO UDALA
2012 OTS. 24
SARREREN ERREGISTROA
Zenbakia ..........147..................

Udalon helburu nagusietako bat herritarren ongizatea zaintzea da, eta Zizurkilgo Udala, zerbitzu publikoa den aldetik, herritarron bizi kalitatea zaindu nahi du, zalantzarik gabe.

Hau honela, eta hiri hondakinei lotzen bagatzaizkio, Tolosaldeko Mankomunitateak urteak daramatza gure hiri hondakinak bildu eta Beasaingo zabortegira jaurtitzen, eta ondorioz gure hondakinek eragiten dituzten kalteak gure bizilagunek pairatzen dituzte. Eta hori ez da zuzena. Ez da zuzena ere, birziklatzeko saioa guztiak baztertu eta gure hondakinak erraustera bidaltzeko asmoa, arazo bati arazo handiago batekin erantzutea arriskutsua izateaz gain antzua baita

Zizurkiltarrok arazo bat dugu hondakinekin. Urteak daramatzagu edukiontzien sistemarekin birziklatzeko asmotan, baina urratsak eman baditugu ere, sistema ahitua dago. Gaur egungo gure birziklatze maila ez da %30era iristen, %90 birziklagarria denean. Denok birziklatzen dugula esaten dugu baina datuak gordinak dira, hondakinen %70 baino gehiago zabortegietara botatzen ari gara. Ez dugu organiko gramo bakar bat ere biltzen modu bereizituan. Eta errealitatea are gordinagoa da: gaur egun papera, beira, ontziak eta organikoa nahastuta botatzen ari gara, balio handia duten eta lehengai diren hondakinak zabor kutsatzaile bihurtzen ari gara eta hori onartezina da.

Arazoa dugu bai, baina konponbidea ere bai. Guk Gipuzkoa garbia nahi dugu, Zizurkilgo airea, mendiak eta errekak garbiak nahi ditugu. Horregatik, eta Zizurkilen gauzak ongi egiten dakizkigulako arazoari muinetik helduko diogu.

Zizurkiltarrok hondakinen murrizketari, berrerabiltzeari eta birziklatzeari ekingo diogu. Zizurkilen gauzak ongi egiten ditugulako zero zabor politikarantz abiatuko gara, pausu txiki batekin emaitza ezin hobeagoak lortuko ditugu.

Hau nola, Udalbatzak zera onartzen du:

1.- Zizurkilgo Udalak ahalik eta hondakin gutxien sortzeko azterketa abiatuko du Tolosaldeko Mankomunitatearekin.

2.- Zizurkilgo Udalak Mankomunitatearekin batera adostuko du konpostatze kanpaina zabala egitea herriko familien artean.

3.- Zizurkilgo Udalak ahalik eta gehien birziklatze aldera, emaitza onenak lortzen dituen hiri hondakinen bilketaren alde egiteko konpromezua hartzen du, eta %80ko birziklatze maila lortzen ari den sistema bakarra atez ateko bilketa da gaur egun.

ZIZURKILGO UDALA

4.- Udalak etengabeko urratsak emango ditu Zizurkil zero zabor lurraldea bihurtzeko bidean.

5.- Hau guztia burutzeko, Tolosaldeko Mankomunitatearekin lan-batzorde bat osatzeko eskaera egingo du.

Zizurkilen, 2012ko otsailaren 23an

Teodoro Hernandorena kalea, 6 - 20159 Zizurkil - Tel.: 943 69 10 12 - Fax: 943 69 32 00 - e-posta: zizurkil@udal.gipuzkoa.net
Elbarrena Auzoan: Aurrera Plaza, 3 - 20159 Zizurkil - Tel.: 943 69 30 66 - Fax: 943 69 36 74 - e-posta: bulegoa@zizurkil.com
www.zizurkil.com